

TRATAMENDU DRAMATURGIKOA:

Barkaiguzue, lagunak, adiskideak, baina Ez Dok Hiru konpainia ez da gauza tratamendu dramaturgiko zentzuzko bat eskeintzeko. Horretarako antzerkiaren fenomenoari buruzko hausnarketa bat egin beharko luke, eta errazionamendua ez dago bere kalitateen zerrendan, antzerki irreflexiboa praktikatzen du, eta zalantzarik baduzue, irakurri “Lingua Nabajorum” eta ikusiko duzue noraino heltzen den haien axolagabekeria eta ze urrun dauden euren lanari buruzko zerbait serio esan ahal izatetik.

Atal honi ganora pixka bat emateko niri deitu didate, konpainiaren kontabilitatea eta administrazioa kudeatzen duenari, hau da, taldean oinak lurrean dituen bakarrari.

Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak osatzen duten bikote artistikoak ibilbide luzea darama. Ibilera horretan, umorea egiteko modu berezia sortu dute, ia oharkabean, ekinaren ekinez, entsegu-errore metodologia erabiliz. Denboraz, baliagarriak zaikien erremientak zorrozten ikasi dute, taularen gainean, publikoaren aurrean frogatuz.

Absurdoaren iturritik edan duen talde honek, hainbat lan taularatu ditu: **Marxkarada, Monstruo Sakratuak, Kontenedore Baten Istorioak...** Ondoren “Ez Dok Hiru” zigulurekin, “**DIBERTIMENTUAK**” izenez bataiaturiko trilogiari ekin zioten; “**Euskera Sencilloaren Manifiesto**”, “**Larruaizetara**” eta “**Euskarazetamol**”. “**LINGUA NABAJORUM**” hau trilogiaren laugarren alea izango da, eta horrela frogaturik geratzen da talde honi logikak ze axola dion.

Izan ere, “Ez dok Hiru-Bikoteatroa”-k jakituria dramaturgiko propio bat, kaligrafia berezi bat sortu du, euren ikuskizunen bat ikusi duenak errez identifika dezakeena, dialogo arin eta eroetan oinarrিতua. Hitzza da euren lan tresnarik garrantzitsuena: hitzeko umorea egiten dute. Laugarren paretik gabe aurkezten dira publikoaren aurrean, eta berarekin harreman zuzenean jartzen dira.

Formatu malguko ikuskizunak sortzen dituzte, Ezin dezakegu eskuarki esan formato txikikoak direnik, sarearen Antzokietan antzezten dutelako; formatu handikoak direnik, gutxiago, antzoki txikietan, kultur etxeetan edota tabernetan ere antzezten dutelako. Malgutasuna da, beraz, formatoari hobekien dagokion definizioa. Jarrera horren arrazoia oso azalrerza da: ahalik eta publiko gehienagana iritsi nahi dute: hiri handietakoengana eta

herri txikietakoengana ere; antzokira joateko ohitura duenagana eta antzoki bat sekula zapaldu ez duenagana ere.

Baina euren estiloa nolakoa den hobe ulertzeko, segidan, Patxok eta Mikelek dossierraren atal honetarako prestatu zuten dokumentua erakutsiko dizuet, alde zuzenetik barkamenak eskatuz. Milesker zuen arretagatik.

DRAMAMENDU TRATATURGIKOA

Gure zerebro matxuratuek nekez uler dezakete zer esanahi izkututzen den “Tratamendu dramaturgiko” misterioitsu horren azpian. Guretzat hitz totemikoak dira, ilunak. Dena den, medikazioa hartu berria dugunez, hainbat ideia etorri zaizkigu burura.

“Tratamendu”-arekin hasi gara. Lehen ideia, “Tartamendu”, gozoa, segituan jan dugu. Bigarrena, zentzuzkoa, “Atarramendu”, ez dator gurekin bat. Totalka hasi gara “Tartajamendu”-z hitz egin orduko. Turutak atera eta “Tarataratamendu” ensaiatu dugu. Gaztelaniaz saiatu gara “Trata Miento”-arekin, baina dena gezurra zen. Mingainak atera ditugu “Ataramendu” frogatzeko. Metrailetekin “tarratratamendu” polit bat sortu dugu. Motxilak ipini ditugu “Trata Mendi”-ra joateko, inspirazio bila, “Tratamundu” osoa zeharkatu dugu erantzunaren xerka. Alferrik.

Perpauaren bigarren hitzari ekin diogu gero. Hitz beldurgarria da. Min ematen duen antzerkia sor daiteke “Traumaturgia”-tik. Istanbulerako tragedia latza izan liteke “Dramaturkia”. Izua sortu digu “Dardaraturgia”-k. Amets lizunak izan ditugu “Damaturgia”-k sugeritzen duen andrearen bular turgentearekin. Urrunago joan gintezke antzerkiaren motoreari “Dramaturbo” bat ezarriko bagenio? “Damaturbia” “femme fatale”-ren itzulpen egokia iruditzen zaigu. “Tramaturbia” desenlaze zikina duen istorioa. Bukatzeko, onartu ezazue ateraldi existentzialista hau, galdera bat datorkigulako burura: Nora ote garamatza “Daramaturgia”-k?

Hauxe da guk “Tratamendu Dramaturgikoa”-z esan dezakegun guztia. Beste egunen batean medikuak ezarri digun “tratamenduaz” hitz egingo dugu, gusto baduzue.

Ez Dok Hiru.